



Kultura Irakaskuntza Internet Informatika Hizkuntza Enpresa BWEB Bestelakoak

Sustatu

- [Zeuk idatzi](#)
- [Jaso e-postaz](#)
- [Hitzorduak](#)
- [Pil-pilean](#)
- [Azkenak](#)

[Bilatu](#)

- [Bilaketa aurreratua](#)

Loturak

- [Aurki](#)
- [Argia](#)
- [PuntBarra](#)
- [Barrapunto](#)
- [Kuro5hin](#)
- [LinuxFr](#)

Honi buruz...

- [Zer da hau?](#)
- [Araukak](#)
- [Kontaktua](#)
- [Gaien zerrenda](#)

Itzuli orri nagusira



Josu Landa eta Fermin Muguruza solasean

Bidaltzailea: Lazkaotxikiforever.
2002-11-20 / 11:16 / Altzatik.

Atzo, azaroaren 19an, arratsaldeko 19:30etan Altzako Casares Kultur Etxean Fermin Muguruza eta Josu Landaren arteko solasaldi publikoa entzuteko prest bildu ginenok, pozik atera ginela uste dut. Ni bai, behintzat. Ferminek galdetu eta Josuk erantzuten saiatu zen "Odolbildua" eleberriari buruz.

Hasieran, Ferminek esan zuen **Odolbildua-ren** etengabeko erreferentzia denbora zela eta, gainera, galdetu zion nolatan pasa dituen 20 urte ezer publikatu gabe.

Josuk erantzun zion ez zela inoiz literaturaren mundutik aparte ibili. "20 urte pasa ditut argitaratu gabe, baina ez idatzi gabe. Zaila egiten zait idaztea. Ezin dut egunero idatzi. Agian ohiko bizimodu okupatuegia dudalako".

Beste momentu batean, Ferminek esan zuen eleberria "oso zinematografikoa" zela eta ea zer aktorekin egingo zuen filmea. Hona hemen Josuren erantzuna:

"Bereziki maite dut Mentxuren pertsonaia, badaukalako ezagutu eta asko aportatu nauten pertsona batzuren elementu asko. Filmarena aipatzen duzula, Mentxuren papera Jessica Lange-ri emango nioke. Askok inpresionatu ninduten Zinemaldian egon zenean egindako adierazpenak. Gainerako aktoreen inguruan, produktorea zu bazara, ez nizuke aholkurik emango".

Ferminek Unax Ugalde proposatu zion eta Josuk: "Unax Ugalde, ez. Nire iloba batek mania handia diolako".

Ferminek esan zuen, hasiera batean, kostatu zitzaioala liburuan sartzea, liburuak harrapatzea, baina iritsi zela momentu klabea, esaldi klabea: "Santos atxilotu dute". Hortik aurrera asko gozatu duela liburua irakurtzen.

Boxeoaren inguruko kontuak ere aipatu zituzten eta argi geratu zen aretoan "boxeo aditu" iaioena Muguruza zela.

Sinesgarritasunaren inguruan ere bota zituen iritzi batzuk Landak berak: "Besteak beste, asmatuak

Kultura



[Bidali hau](#)



Babeslea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria
eta Karol Departamentua.

Pil-pilean!

Erantzun gehien izan dituzten albisteak:

- [Linux badator eta euskaraz daki](#)
14 erantzun
- [Goienkaria, Europako ondoen diseinatutako artean](#)
6 erantzun
- [Euskal hiztegiak auzitan](#)
4 erantzun
- [Helduen Euskalduntzearen "krisi" eta etorkizunaz gehiago](#)
3 erantzun
- [Ikasketa birtualak hobeto ezagutzen](#)
3 erantzun

